



↑ Esther Ferrer. [Aitor Bengoetxea]

Esther Ferrer

[M. Zilbeti + M. Otaegi]

Honez gero bi aste daramazu hemen eta elkarrizketa asko egin dizkizute. Zein da gehien errepikatu den galdera.

Zure performanceak zurekin batera eboluzionatuko zuen, noski.

[Esther Ferrer]

Gehien errepikatu dena? Ea eboluziorik izan den performancean, eta nola hasi nintzen performancea egiten. Uste dut gehien galdetu dizkidaten gauzak izan direla, eta beti galdetzen dizkidate.

Nirekin batera zahartzen dira, nirekin batera aldatzen dira. Lehenengo eta behin, egoera politiko-soziala aldatu egiten delako, eta psikologikoki zu ere aldatu egiten zara, baita zure interesak ere, eta zure lanak horren arabera eboluzionatzen du. Fisikoki ere ez naiz hogeita hamar urte nituenean bezalakoa, eta performance batzuk ezin ditut egin orain. Moldatu egin ditzaket nire egungo egoerara, eta batzuetan moldatu egiten ditut ideia gogoko dudalako eta ez dudalako tiradera batean ahaztuta utzi nahi. Baina beste batzuetan ez, ezin ditudalako gauzak egin garai batean bezala eta ez dudalako aldatu nahi. Performance horiek desagertu egiten dira eta lekua uzten diete nire egungo egoera fisikora, psikologikora... Hobeto moldatzen diren beste batzuei. Bolada batzuetan artearen alorreko kezka gehiago dituzu, eta beste batzuetan, arrazoiren batengatik, egoera den bezalakoa delako, kezka sozio-politikoak dituzu, edo bizi-egoera arraro samarrean zaudelako, eta horrek guztiak eragina du egiten dituzun gazuetan, alor plastikoan edo performance alorrean.

Esan ohi da teoria asko daudela performancearen inguruan, zenbat performer, hainbat teoria. Beraz, zuk ere izango duzu zeure teoria...

Performancea espazio pribatuaren eta publikoaren arteko bat egite moduan ikus al daiteke?

Baina performancea tresna baliagarria al da jendaurrera eramateko pribatua dena, eta alderantziz?

70eko hamarkadako emakume performerrei dagokienez, feministek errealitatea distorsionatzeko tresna gisa ikusten zuten performancea.

Bai horixe, neure teoria dut, baina soil-soilik nik egiten dudanaren inguruan. Uste dut performer bezainbeste teoria eta definizio daudela, baina mundu guztia ez dago ados horretan, alderantziz. Hainbatek teoria hori sintetizatu, aztertu, sailkatu, salbuetsi e.a. egiten dute. Nik nire lanaz hitz egiten dut beti. Badakit zer egin nahi dudan, zer uste dudan ekintza bat dela, eta hortik aurrera teorizatu egin dezaket egiten dudanaren gainean.

Gerta daiteke nire performanceak ikusten dituztenak batere ados ez egotea nire teoriarekin, baina horrek ez dit eragozten, aitzitik, oso gustatzen zait, asko kostatu zait ulertzea ados ez egotea aberasgarria izan daitekeela parte guztientzat.

Bai, zergatik ez? Baina era pribatuan edo jendaurrean egin daiteke.

Bai, baina gauza bera esan daiteke margolan batez, film batez, antzerki lan batez... Hainbatetan horiek ere pribatutasuna kanporatzen dute... Performanceari aplikatu dakioke, baina ez da eskusiboa. Adibidez, askotan irakurri izan dut eleberririk askotan osagai autobiografikoak daudela; kasu horretan ere pribatua dena jendaurrera eramaten da. Gauza batean arrazoi duzu, beharbada, eta hori da eleberrian, margolaritzan edo beste arte batzuetan agian «mozorrotuta» edo ezkutuan dagoela, eta performancean, ekintzan, haien ezaugarriak direla eta, begien bistakoagoa dela, performerra aldi berean objektu eta subjektu delako; errealagoa da, horren arabera. Baina oso ezkutatuta ere egon daiteke, manipulatu, nahiz eta ni manipulazioaren erabat kontra nagoen, zalantzarik gabe faltsutu egin daiteke, ezta?

Borroka bi mailatan zen: pribatuan, jakina, gauza asko zalantzan jarri behar zirelako zure bizitza pribatuan, sexualitateari dagokion guztia, zure bikotekidearekiko harremana, dependentzia atabikoak, e.a. Baina soziala ere bazen: borrokatzen ginen sozialki ukatzen zitzaizkigun alorretara iristeko: abortu eskubidea, lan berdinari soldata berdina, geure gorputzaren jabe izateko eskubidea, publizitate umiliagarriaren aurkako borroka,

Artelekun, tailerra hastean, parte-hartzaile bakoitzaren aurkezpenaren aurretik honako hau esan zenuen: «jakintzat jotzen dut hemen zaudeten guztiak feministak zaretela»; hori da abiapuntua.

Zenbaitetan esan duzu ez zarela feminista, baina zure artea feminista izan daitekeela edo ez.

e.a. Gauza horietatik asko publikoaren eta pribatuaren mugan daude, eta gure arteko eztabaidetan gai horiek guztiak jorratzen genituen, ahalik eta argien ikusten saiatuta.

Arte munduari dagokionez, sinetsita nago feminismoak zabaldu egin dituela gaiak eta arte alorreko aukerak, ordura arte a-artistiko edo ez-artistiko jotzen ziren gaiak azaleratuz; eta gai horietako asko emakumeen eguneroko bizitzaren parte bat ziren. Ildo horretan, zaila da banatzea, borroka feministan eta arte alorrean, zein neurritan ari ginen defendatzen geure nia eta geure nortasuna, zeren irudi berri baten, emakume izaki berri baten ikusgarritasun soziala -eskubide guztiakin, erreakzionatzeko gaitasunarekin, parte hartzeko eta erabakiak hartzeko, e.a., gaitasunarekin- defendatzen ari baikin orobat.

Izugarri poztuko nintzateke hala balitz, baina ez da beti hala gertatzen. Noizean behin emakume antifeministak ere topatzen dituzu, arazoaz gogoeta egin ez dutenak, kontziente ez direnak ezta emakumeen eskubideen murriztapenez ere, ez direlako pentsatzen jarri, edo besterik gabe onartzen dutelako hori horrela dela eta, are okerrago, hala izan behar duela. Ez dute inoiz arazo gisa ikusten, beharbada ikusiko balute hainbat eta hainbat galdera sortuko lirakeelako, eta nahiago dute ez pentsatu. Egia da zuretzat eta niretzat eta gaiaren inguruan gogoeta egiten duten emakumeentzat bizitza korapilatsuagoa dela, eta gizonetikiko harremana ere bai, noski, eta ez bakarrik bizitza pribatuan, baita profesionalean ere.

Ez naiz oso etiketazalea, baina uste dut gaur egun guztiz beharrezkoa dela etiketa feminista, zure jarrera argi geratzea. Uste dut feminista zarenean hori zarela hausnartu egin duzulako, emakumearen askapenaren alde borrokatu zarelako, informatu egin zarelako, eztabaidatu, irakurri, zeure kontraesanak argitzen saiatu, e.a., orduan horrek egiten duzunarengan eragin zuzena du. Gertatu izan zait performance bat egin ondoren emakume batzuk nirekin hitz egitera etortzea eta esatea: «zu feminista zara, ezta?». Eta beti harritzen nau, zeren eta beharbada egin dudana performancea erabat absurdoa zelako, asko lantzen baitut zentzugabetasuna... Beraz bizitzan dudana jarrera feministaren parte bat ikusgai geratzen da, jakina! Beste batzuetan arte alorreko nire lana egoera jakin baten aurka borrokatzeko erabili

Interesgarria da, hor ikusleekin eduki nahi duzun harremana baitago, azkenean ikusleek interpretatzen dute egiten ari zarena. Berdin zaizu haiei gustatzea edo ez gustatzea?

Uste duzu harremanik badagoela teoria postfeminista/queerren eta performancearen teorien artean?

Bide horiek emakumei ahalbidetu diete subjektu bilakatzea eta beren burua antzezteari ekitea.

dezaket, hori emakumearen egoerari dagokion zerbait izan daiteke, eta protesta edo salaketa lan bat egiten dut. Garrasi antzeko bat da, bere burua feminista definitzen duen lan gisa sortzen dena erreakzioa delako emakumeen eskubideen edo askatasunaren aurka doan gertakari baten aurrean. Baina ez dut feminista domina edo bandera eraman nahi artearen esparruan. Ni feminista naiz hogeita lau ordutan hogeita lau, eta egin behar dudala iruditzen zaidan artea egiten dut.

Berdin zait. Niri egoera jakin batean nahi dudana eta nahi dudan moduan egitea interesatzen zait, eta mezu bat bideratu nahi badut, gai izatea gauzak ahalik eta era garbienean esateko, batez ere gogoeta bat proposatzen saiatzen naizenean garrantzizkotzat jotzen dudan zerbaitetaz, horretaz gogoeta egitea merezi duela uste dudalako.

Ekintza sortu zenean haustura moduan kokatu zuen bere burua arte adierazpenaren alorrean, baina, nik dakidala, ez zen espazio feministetan sortu, gizonak ziren hasi ziren gehienak; bazeuden emakumeak Gutañ, Fluxusen eta beste zenbait mugimendutan, baina gutxiengoa ziren, eta horrek ez du esan nahi aitzindariak eta garrantzitsuak izan ez zirenik. Baina ekintza emakumearen egoerari dagokionez zenbait errebindikazio mahai gainean jarri eta jarrerak argitzeko bide egokia edo erraztailea baita, feministok, lesbianak edo ez, hura bereganatu dugu, eta praktikatu egiten dugu. Beti arte feminista, borroka artea egin duten emakumezko artistentzat bai, performanceak baditu eskemak apurtzeko oso erabilgarriak izan daitezkeen osagaiak, bideoarekin gertatzen den bezala; beharbada horregatik daude hainbeste emakume bideogile.

Antzezpenez ari zarenean, nik beti esaten dut performanceak ez duela antzezten, aurkezten baizik. Kontua gehiago da egungo egoerara eraman duten posizio «hegemoniko» horiek apurtzea. Ez duzu zeure gorputza antzezten, aurkeztu egiten duzu zure emakume gorputza, haren eskubide guztiekin; polita, itsusia, txikia, garaia, gaztea, zaharra... Zurea da, eta zure ekintzaren

Aurkezpena...
Berraurkezpen / antzezpena...
Egile batzuek defendatzen dute gaur egun beste rol batzuk antzezten dituen rol bat antzezteko egoeran gaudela beti.

Performancea arte sistemaren haustura moduan ikusten al duzu?

subjektu gisa erabiltzen duzu. Baina emakumearen borroka bere burua antzezteko performancea baino lehenago hasi zen, eta ez bakarrik artearen esparruan...

Calderón munduaren antzoki handiaz mintzatzen zen. Denbora da testu batean idatzi nuela munduaren erdia beste erdiaren ikuslea dela eta paperak etengabe trukatzeko direla. Arau sozial sorta baten mende jartzen zaren unetik, modu batean janzten zaren unetik, e.a., pertsonaia bat ari zara antzezten, izan nahi duzun horri erantzuten ari zara, batzuetan gizarteak oso baldintzatuta, beste batzuetan gutxiago. Ni absolutua, purua? Zer da? Zer gara? Ez dakit, niretzat dena enigma gisakoa da...

Ez artearen haustura gisa, ia beti arte sistemaren barruan egoten baita. Hori bai, ez nuke nahi performancea artearen barruko beste genero bat besterik gabe bihurtzea, baizik eta objektu hegalaria ezezagun antzeko zerbait, halako elektroiz libre bat, inork ongi ez dakiena non dabilen, eta helbide finkorik gabe jarraitzea; hala ere, performancea gehien-gehienetan artearen alorrean aurkezten da. Nik haustura posizio batean mantendu ahal izan nahi nuke, alegia, oraindik ere jan egiten duen zerbait izatea, kutsatzen den birus baten antzera funtzionatzen duena, eta harekin bukatzeko edo hura definitzeko, sistematizatzeke botika inork ezagutzen ez diona. Hau kontrolagarria, definitua, egituratua izan dadin lortzeko txertoa inork aurkitzen ez diona. Eztabaidan genioen bezala, arte sistemaren barruan edo kanpoan erresistentziatzeko osagaia izaten jarrai dezan nahi nuke nik, beti izan dadin erantzunik gabeko galdera bat, ekintzaren eduki sozial edo artistikoaren inguruan, eta are formalki ere. Nik nahi nuke halako aniztasunari eusteko nahikoa bizitasuna izatea, eta ikusten dutenek beti galdetzen jarraitzea: zer da hau? Baina hau artea al da? Nondik heldu behar zaio? Noiz bukatzen da? Noiz hasten da?...Nora doa hau? Beti izatea beste arte generoak ez bezalako bihurtzen duten osagaiak, halako moldez, non ezingo bailitzateke inoiz beste genero bat bilakatu.

Judith Butlerrek errepikatzearen errepikatzeaz normatibizatu eta botereari erantzuten dioten ekintzen errepikapen moduan ulertzen du performatibotasuna. Performanceak ba al du zerikusirik performatibotasunaren irakurketa horrekin?

Performancea irakatsi egin daiteke...

Eztabaidatu egin da orobat ea hori hala izateak arriskuan jarri ote dezakeen nola performancea hala ikasleak beraiek, formateatuak izateko arriskupean baitaude.

Suposatzen dut kasu batzuetan baietz eta beste batzuetan ezetz. Orokortzeak beti dira murriztaileak, performer bakoitzak aginte horrekiko gordetzen duen jarreraren baitan dago, eta agintearen barruan sartzen ditut, jakina, zenbait kritikari, komisario, unibertsitario, e.a. Eta edonola ere, gaur egun ba al dago aginte horri erabat ihes egiten dionik? Alde batera utzita jarrera guztiz erradikalak, erabateko hausturazkoak, eta horien artean sartzen dut, noski, «arte»rik ez praktikatzea batere. Kontua da, apal-apal, guztiz berreskuratua izango ez dela uste dugun, edo uste dudana, zerbait egitea, eta aurkezten garen leku guztietan askatasun horren alde borrokatzea. Horregatik defendatzen dut hibridotasun erabatekoa, legezketasunik eza eta nahasmendua performancearen praktikan.

Batzuetan pentsatzen dut beharbada irakats daitekeena performancearen historia dela, haren bilakaera. Baina horretarako ere «definitu» egin behar da zer den performancea, aztertu egingo baituzu, eta performerrak bezainbeste definizio daudela uste dudanez...

Jakina, erabakitzen baduzu performancea «hau dela» eta ez beste zerbait, forma «x», «y» edo «z» bat izan dezakeena eta duena, orduan edozein artelan bezalakoa da, eta aztertu egin dezakezu, are sistematizatu ere: forma, bolumenak, espazioak, edukiak, osaketa, teknika, e.a... Baina ez dakit zertarako balio izan dezakeen irakaste horrek; performancea ez da diziplina bat, ez dauka «teknika bat»...

Kontua da ea historia ikasteko beharrezkoa ote den irakasle bat izatea. Artearen historia zerorrek ikas dezakezu liburutegi batean, bideoak ikusi... Eta zeure ondorioak atera. Baina horrek ez dizu irakasten performancea egiten, beharbada irakatsiko dizu kopiatzen edo beste norbaiten bideari jarraitzen.

Onea norberak asmatzea da, eta horregatik mintegiak ematen ditudanean ez dut bideorik eramaten, ez dut nire lanaz hitz egiten, non eta galdetzen ez didaten... Batzuetan lanen baten aipua egiten dut parte-hartzaileetako batek beste artista baten ekintzaren baten antza duen zerbait egin duenean. Esan egiten diot, besterik gabe horrek eraman dezakeelako interesa hartzeko eta ikertzeko «x» artistaren inguruan, esparru berean lan egin

Pedagogien desikastea pedagogia alternatiboa izan al liteke?

duelako eta lagundu egin diezaiokeelako bere jarrera argitzen. Baina ez jakintza metatzeko, horregatik ez ditut inoiz parte-hartzaileak aukeratzen, ezta CVrik eskatzen ere. Niri gustatzen zait jendea datorren lekutik etortzea, eta datorren jendea ez egotea arte eskola batek, unibertsitate ikasketa batzuek e.a. baldintzatuta. Nire ustez unibertsitarioak, artistak, atzean inolako arte praktikarik ez dutenak, e.a. nahastea da onena. Aberasgarriagoa da denontzat.

Aipatu duzu performance batzuk gordeta daukazula, aldatu egiten dituzula... Egiten dituzun aldaketa horiek zeuretzat baliagarriak izan daitezten al da?

Cagek ikastaro batzuk eman zituenean New School for Social Researchen, lehendabiziko egunean parte-hartzaileei galdetu zien ea ba al zegoen inoiz musika ikasi ez zuenik. Uste dut Al Hansenek altxatu zuela eskua eta «Ni» esan. Cagek erantzun zion «Bikain, hartara ez duzu ezer ahaztu behar izango».

Performance batean pentsatzen dudanean ez dut inoiz «bestea» gogoan, nire premia bati erantzuten diote haiek. Gasteizen esaten zidaten «baina batzuetan performance politikoak egin izan dituzu». Hala da, baina haiek ere egiteko unean dudana premia bati erantzuten diote, niregan eragina izan duen zerbait gertatu da eta erreakzionatu egin behar dut, eta erreakzio hori, lehen esan dizudan bezala, beharbada lan bat da. Nik uste protesta egin behar dugula, eta hori da nire protesta, baina nire premia bati erantzuten dio. Pertsona naiz aurrena, eta gero artista.

Premiaren arte praktika dela esan al liteke?

Bai, uste dut gauzak, nik behintzat, premiagatik egiten ditugula, desiragatik... Karitatea ere egiten duzu zeure premia bat dela-eta, eta oso ongi dago, eta zergatik ez? Erabilgarria baldin bada, jendeari lagundu egiten badio... Ez gaitezen aztertzen hasi. Zuk ongia egiten badiozu beste norbaiti, arrazoa edozein dela, badakizu zein neurritan zaizun baliagarria, eta artea antzeko zerbait da. Nik egin nahi dudalako egiten dut, eta gainera norbaitentzat baliagarria baldin bada, ezin hobeto, baina beste batzuetan benetan esan nahi dut *hau* eta ez beste zerbait, eta jendeak era ahalik eta argienean uler dezala; horregatik saiatzen naiz bitarteko guztiak jartzen mezua irits dadin. Beste batzuetan anbiguoagoa da, ezkutukoagoa... Eta atsegin dut

Valentín Torrensek zioen performancea auto-ebaluaziozko praktika bat dela.

era desberdinetan interpretatu ahal izatea, hain desberdinetan, non agian ez baitute zerikusirik egin dudala uste dudanarekin, eta hori dibertigarria eta interesgarria iruditzen zait, baina beste batzuetan, esan bezala, ez. Halakoetan ia-ia ekintza militantea da; tira, nire ustez askatasunean egindako arte oro militantea da, politikoa da.

Hori norberaren araberakoa da. Lan bat egiten duzun bakoitzean zeure buruari erakusten ari zara egin dezakezula, kontzienteki edo inkontzienteki. Uste dut hori guztioi gertatzen zaigula. Hau egiteko gauza izango al naiz? Antolatzeke, nik nahi dudan moduan gauzatzeko? Gai izango ote naiz, ez bakarrik intelektualki eta filosofikoki, baizik eta fisikoki halaber? Jendaurrean egiten duzun gauza baita, eta zeure buruari galdetzen diozu: goiari eusteko gai izango ote naiz? Baina gauza bera gertatzen da margolan bat pintatzen duzunean edo eskultura bat egiten duzunean...

Egiten dugun guztian, guk hala nahi edo ez, geure burua sendotzen ari gara. Performancean gertatzen da baduela alderdi «espektakular» (kakotx askoren artean) hori. Margolan bat produktu guztiz bereizia izaki, edo guk artistarengandik erabat bereizita ikusten duguna, baita fisikoki ere, argi dago hartan pausatzen den begirada ez dela performancean gertatzen denaren berdina; azken honetan distantzia hori ez da existitzen, artista subjektu eta objektu da, eta horregatik proposamena onartu edo baztertzen duenaren interpretazioak askoz aberatsagoak dira, zuzenagoak, beharbada bai nahasiagoak ere.

Objektua hezur eta mamizko subjektua da, ez da margolan bat, ez da zerbaiten emaitza. Margolan batean, esate baterako, emaitza hortxe dago, tinko, baina performancea zure begien aurrean egiten ari da, *in situ* eralda daiteke. Inork ez daki zein izango den emaitza, egiten ari da, esan nezake ere ez dagoela emaitzarik, proposamen baten, egoera baten... Garapena baizik, besterik gabe. Margolan bat epaitu egin dezakezu definituta, burututa dagoenarekiko, baina performance batean askotan ez duzu jakiten noiz hasten den eta noiz bukatzen den, ez ditu lan plastiko tradizional baten osagai berak. Zure gogoia mugitzen ari da, ez dago geldirik, erne egon behar du etengabe.



↑ *La primera media hora...* Esther Ferrer. Centro Cultural de la Villa. Madrid, 1983.